

# Mixel Labèguerieren olerki abestua

## La poésie chantée de Michel Labèguerie



Jean Hantschelhar\*

*Michel Labèguerie-ri esker (1921-1980) aldatu da osoki kantua Euskal Herrian. Kontutan hartuz komunikabideen eragina moldatu du kantu berria mamiz eta doñuz. Aipatu dituen gaiak dira: abertzaletasuna, alegia idurikoak, eguneroko sendimenduak bai eta ere sendimendu pertsonalak.*

*Giltz-Hitzak: Kantua. Metrika. Abertzaletasuna. Alegia. Norberuko olerkia.*

*Michel Labèguerie (1921-1980) est véritablement le créateur de la chanson moderne basque en l'adaptant aux médias nouveaux, ce qui suppose un changement important dans la métrique basque. Il renouvelle aussi les thèmes en introduisant l'abertzalisme, cultivant les souvenirs de la vie journalière, le genre de la fable et, enfin, les sentiments personnels.*

*Mots Clés: Chanson. Métrique. Abertzalisme. Fable. Poésie personnelle.*

*Gracias a Michel Labèguerie (1921-1980) la canción experimentó un cambio total en Euskal Herria. Teniendo en cuenta la influencia de los medios de comunicación, creó una nueva canción tanto en lo que se refiere a contenido y letra como a melodía. Estos fueron los temas que trató: patriotismo, composiciones a modo de fábulas, sentimientos habituales y también sentimientos personales.*

*Palabras Clave: Canción. Métrica. Patriotismo. Fábula. Composición personal.*

---

\* "Elomieta". 24, rue Lamigotte. F64600 Anglet - Angelu

Aspaldikoa da kantua Euskal Herrian. Lehenak agertu dira XIV. mendean Hegoaldean, XV.ean Iparraldean *Bere terretxeren khantorea*-rekin. Izan diton gertakari kantuak, gehienetan gertakari lazgarriak edo amodiozko kantuak XVIII eta XIX. mendetan bereziki, luzeak ziren kantu horiek, hoguei, hogeita borts bertzukoak, hala nola, etsenplu baten emaitako, *Elxahun Barkoxe-ren Ahaide delezius huntan*, aski berant idatzia, 1848-an. Bazen beraz ohidura zahar bat euskal kantuan: ixtorio baten kondatzeko behar zirela xehetasun guziak eman, ixtorioa baitzen zinez kantariak edo entzuleak maite zuena, ixtorioak zuelakotz hunkitzen jendea.

Ohidura hori aldatua izana da XIX. mendearen erditsutan, 1853-an hain zuzen, Antoine d'Abbadie-k adixkide batzuekin sortu zituelarik fama haundia ukanen zuten lore jokoak. Lore joko horietara gomiatuak dira Euskal Herri guziko olerkariak edo kantu egileak bainan baldintza batekin. Hona zein den:

*«La chanson ne devra pas avoir plus de cinquante vers, être en strophes et être adaptée à un air basque connu que l'auteur indiquera.»*

Ez da osoki hautsia ohidura zaharra, kantu bat galdegina delakotz, bertsutan egina, betidanik bezala aire zahar batean bertsu berriak sortuz. Diferentzia bakarra da: gehienez 50 neurtitzekoa izan behar dela, erran nahi baita 12 edo 13 lau punduko bertszuz edo 10 borts punduko bertszuz egina.

Baldintza hori segituko dute olerkari guziek Elizanburu, Larralde medikua, Otxalde, Dibarrart, Zaldubi direla lekuko salbuespen bat gora behera.

XX. mende hontan aitzinamendu ikaragarriak egiten ditu teknikak, bai komunikabideetan (irratia lehenik, telebixta gero, internet eta abar) eta bai euskarnetan, paperaren ondoan baitago diska, geroxago mainetofona edo hots-hartzailea. Mixel Labeguerie-k konprenitu du zer den euskari berriaren balioa kantuaren zabaltzeko, eta hori 50-eko hamarkadan. Diskan sartzeko kantuak iraun behar du gehienez 3 minuta, ez da luzeago izan behar. Beraz, euskari berriaren gatik aldatuko da Lore jokoen ohidura, mende oso bat iraun duena, eta sortuko da ohidura berri bat, kantu laburraren ohidura. Mixel Labeguerie-k sortu du euskal literaturak, bereziki olerkiak, ezagutu duen estetika berria. Izana da lehena, bertzeek segituko dute bai Iparraldean eta bai Hegoaldean, denek aitortzen dutela Mixel Labeguerie izan dela kantu berriaren aita, bai gaien aldetik eta ere aire berriak sortuz. Joana da “aire zahar ezagutuen” garaia.

## GAIK

Bainan, zer eta nola erran epe hain laburrean. Erregela guziak aldatuak dira: behar da bertszua laburtu: neurtiz batekoa errepiken artean (*Make to*) edo bikoia (*Ezkilaren kantua*); lau punduko bertszua delarik, hiruzpa lau bertszu dauka kantuak: hiru (*Haurtxo haurtxoa*, *Zer duk hain ilun*), lau (*Gazteri berria*, *Bost iturri*). Bertszu gehiago delarik (*Gatua Pitxitzik* 6 bertszu, *Gau ilunak* ere)

laburtzen da neurtitza. Ez da gehiago 18 (5+5+8) edo 13 (7+6) oineko neurtitza, 8 oinekoa baizik. Ikus daiteke beraz aldaketa haundia ezagutzen duela olerkigintzak XX. mendearen bigarren erdialdian.

Dudarik gabe gaiak oraikoak dira eta ez gehiago XIX. mendekoak: etxea, laboraria, artzain eta artzaintsa, basemiaren laudatzea harekin basemitar mundua. Are gutiago haundien lausengatzea, Emperadorea eta Emperatriza garai batean eta ez ere deserturra gutietsi lehen gerla mundialaren ondotik.

Giroa osoki aldatua da bigarren gerlaren ondotik eta Espainiako gerlaren ondotik. Franco-k zangopilatzen ditu Euskaldunak eta lehenbiziko Jaurjaritzaren orritzapenetan dago Euskal Herria, Iparraldean bizi direlarik herbestea hautatu dutenak 1937-39 arte hortan eta hirurogeiko hamarkadan bertze belaunaldi gazteago batek hautu bera eginik, denbora berean hasten dela Franco-ren kontrako borroka armatua.

## ABERTZALETASUNA

Hau da lehen gaia, Labèguerie izan delakotz abertzaletasunaren lehen kantaria. Euskaldun gudaria goraiatzeko du bereziki.

Zer duk hain ilun deritzan kantuan elkarriketa baten bitartez adiarazten du zer den euskaldun gudariaren kezka. Ez du bestarako gomita onartzen. Nahiz gaztea den, galdu du bere gaztetasuna jadanik. Bihotzean dauka zauria «ez baita libro Euskadi», lagunak hilak edo desterruan, bera euskaldun guziekin preso etxean. Euskadi askatu baten amentsan bizi da, gau ilunaren ondotik baitator goiz alba.

*Bai bai, bai, alai izango naiz ni  
Libratu eta Euskadi.*

Gazteri berria sortzen ari da Euskadin. Errepikan, lau aldiz errepikatua kantuan, hitz gutiz, agertzen du bere sinestea:

*Gu gira Euskadiko gazteri berria  
Euskadi bakarra da gure aberria.*

Dena bildua da bi neurtitz trinko horietan oihukatzen delarik bai Euskadi eta bai aberria, bi hitz horiek debekatuak direlarik Hegoaldean. Hirurogeieko hamarkadan hitz horiek badaukate beren pisua. Lekuko naiz, gau batez, 1964-eko udan, izan ginelarik Mixel Labèguerie, Pierre Landaburu eta ni Donostiako sozietate batetan Mixel-ek kantatu zuela kantu hau. Mezan bagine bezala, ixiltasun haundienean eta gero esku zartak, txaloak, begiak bustiak ere eta bihotzak pil pil.

Kantu horrek agertzen ditu gazteri berriaren kezka: lurak salduak kanpokoari, euskara maitea aitamek ez erakutsi, mugaren bi aldetan badela Eus-

kal Herria eta bateratzearen mezua. Azpimarratzen dut eskaintzen duela Labè-guerie-k ideia berri bat ez ezagutua edo guti ezagutua gerla zibila baino lehen:

*Kaskoin edo maketo ez dugu etsaia  
Bainan Euskal semea da gure anaia.*

Ikuspegi berria, giristinoarena naski.

Haurtxo haurtxoa sehaska-kantu bat da. Amak kantatzen dio haurrari lokar dadien. Hor ere errepikak salatzen du giroa:

*Haurtxo haurtxoa izu egin lo  
Hemen nauzu, zu zaintze ko.*

Hemen nauzu, bakarrik, bakartasunean bizi aita preso delakotz. Emeki emeki erakusten dio aitaren falta: «*Aita urrun da*» lehen bertsuan, «*Aita preso da*», bigarrenean eta orduan dator geroaldia aditzetan «*etorriko da*», «*bizitze ko*», «*izango dire*», esperantzazko mezuarekin.

Sehaska-kantua, bainan denbora berean familia berexutuaren kantua, abertzaletasunaren gatik aita urrundua, aita preso, ama bakarrik zaindari bientzat eskaintzen diola amodioa haur ttipiari.

**Tripan min:** Brassens-en kantuen idurikoa. Eztabaida Kaskoin eta Euskaldun baten artean. Merkatu aratsa, ostatua, biak afaltzen ari, erretira ordua ez urrun. Orduan hasten da gataska politikan sartu direlakotz. Orduan hitz ederak «*Gora Euskadi*» eta hitz gordinak «*sale Basque*». Jandamen sartzea, Euskalduna preso, Kaskoina libro. Joka partidaren ondotik sortzen da herra, gogoan atxikiko duena. Gureak gure dio kantu horrek eta segur naiz Mixel-ek zaukala gogoan Hiriart-Urruty osabak idatzi zuena Eskualdunear:

*«Gure buruen jabe nahi badugu egon beti, jakin dezagun beldurik gabe, behar arau mintzatzen eta egiten. Ez izan uzkur, ez herabe, jazar etsaiari, zangoa buruaren gainean ezarri nahi le raukigukenean. Eta ez badu sine tsi nahi gu girela, gu Eskualdunak herriko nausi, jo muturrean.»*

**Nafarra, oi Nafarra:** Mixel Labè-guerie-k bazakien Euskal Herriaren historia, Nafarroako erreinuarena, oraiкотzen duelarik «*Euskadi lehe na*» deituz. Emaiten dio lehendakaritza, «*zazpi ostoko arrosa*» metaforarekin eta gero Santxo Haundiaren garaia Nafarroak biltzen zituelarik Euskal Herriko zazpi probintziak. Kantu honetan errepika garrantzi haundikoa da, hain zuzen aldatzen baita aldiro. Gelditzen diren hitzak dira lehen neurtitz osoa:

*Nafarra, oi Nafarra, Euskadi lehe na.*

eta bigarrenean «*ametsa*» eta «*zure erre gena*».

Aldatzen dira aditzak, iraganari begira lehenean «*ederra zen*», galdezkoa bigarrenean «*nun da*», agintezkoa hinugarrenean «*egin zazu*» eta agiantzakoa azkenean «*bizi bedi*».

Iragana lehen bertsuan:

*Zure an zen loratu batasun gogoan.*

Ilun beltza bigarreanean, lehengo historia ahantzirik, bainan orainean.

*Santxoren hil hobitik ilun nabarre tan  
Beti jalgitze n diren hasperen trixte tan.*

Geroari itzulirik galdegina zaio:

*Xuti zaite ta jalgi errege jauntzitan  
Batasun berriaren arrosa eskutan.*

eta, hain zuzen orduan heldu da agiantza

*Bizi bedi ametsa zure erregea.*

Zinez ametsezko kantua eta are gehiago gaur egun. Ametsa da olerkarien erreinua.

**Parisen eta Madrilen:** 70-ko hamarkadako kantua. Frantses gobernuak kanporatzen ditu Iparraldetik Hegoaldetik etorritako abertzaleak. Orduan hasten dira gose-grebak, Baionako katedralean eta Iparraldeko eliza batzutan. Alde batetik bi gobernuen (Parise eta Madrile) arteko kideetasuna edo hobeki erran kidekeria jende eskubideen kontra jokatuz eta abrekeria horren kontra.

*Euskal seme hobere nak zazkote oldartu.*

Bainan oldartze hori ez da borroka armatua.

*Aserik dagon munduan hautatu gosea.*

Argi eta garbi errana da Gandhi-ren ereduari jarraikiz:

*Ez dute hartu puñalik ez eta ere bonbarik  
Ez zuten harma beharrik gosea besterik.*

Gogoan heldu zait erresistentzia garaian Paul Eluard frantses olerkari famatuak goraiapatzen zituela “*les armes de la douleur*”, oinaze-armen balioa aldarrikatuz.

**Bakearen urtxoa:** Bakearen urtxoa Picasso-k marrazkitu zuena eta mundu guzian zabaldua eta beraz, orai erraiten den bezala, sinbolo unibertsala. Hitzak Larzabal-enak diotenez, behar bada Mixel-ek pixka bat aldatuz eta sortuz doakon musika.

Gerletan egiten diren abrekeriak, gerlaren ondorioak pairatzen duten guzientzat —eta hori mundu zabalean— (hil, kolpatu, presoner) haien fami-

lientzat galdegiten dio olerkariak urtxoari izan dadiela kontsolatzaile. Urrunago doa bigarren bertsuan ez baita izanen kontsolatzaile bakarrik, bainan esperantza emaila. Ez da aski urrikari agertzea urtxoarentzat, behar du dohakabea lagundu, berotu, bere gau beltzatik jalgiarazi, geroari buruz gidatu, eman bizitzeko indarra.

Azken bertsoa otoitz idurikoa da: *«he men zaite geldi»* Euskadi deitzen den lur sakratuan. Kantu hortan, bertze batzutan bezala errepikak badu bere garrantzia aurkatzen dituelarik gau beltza eta izarren dirdira:

*Jende gaixoak  
Ez beha gau beltzari  
Bainan bai izarri  
Bakea dela zueri.*

Jende gaixoen orde azkenean ezartzen duela *Oi Eskualdunak* eta errepikatuz bertze hiru neurtitzak.

**Maketo:** Julian Lekuona-k idatzia, Mixel-ek maite zuen kantua. Bost aldiz errepikak adiarazten du Euskaldunak direla, bertze guziak bezala, gorputz eta arima, haien artean apezak.

Zinez euskaldunak dira, euskararen kontzientzia badaukate eta euskararen kontzientzia hori arimetan datza. Erdaraz eginikako manuak ez dituzte ulertzen eta ez ulertu nahi ere obispoen edo apezpikuen ganik jinikan ere. Jaungoikoak bakarrik manatzen ditu eta apezek obeditzen euskaraz mintzo baita Jaungoikoa. Maketo kantua, euskararen kontzientiarena.

**Oi kanta berri:** Azkenetarik egina dio Eneko-k Mixel-en semeak. Olerkariak berak salatzen du.

*Beste lanetan iragan ditut hainitz egun ta gaualdi.*

Bigarren bertsuan agertzen da gizon publiko gisa aipatzen dituelarik bide, zubi, argi eta ur garbi beharrezkoak, auzapez eta agintarien esku direnak, herri guziek ukan dezaten eta bizi dituen jendeak bereziki XX. mendeak eskaintzen duen aintzinamendua baliatuz.

Lau hitz horiek hartuko ditu berriz hirugarren bertsuan, neurtitz bakoitzaren azken hitzak direlarik, indar berezia bereganatzen dutela, sinbolo gisa agertzen baitira metaforari esker.

*Oi kanta berri izan zaite zu, anaiarteko zubia  
Batasunetik libertatera gidatzen den bidia  
Kartze lan den abertzaleari emozu doi bat argia  
Etsiturikan den bihotzari esperantza ur bizia.*

Auzapezaren eginbideak, olerkari abertzalearen ametsak. Mixel-en biziaren azken urtekoetako kantua dela nabari da azken bertsuan. Gibelaldera

soegiten du, bere iragana ikusten eta kantu berria hori da, azkenean, berak bere bizian egin dituen hutsen ordaintzeko.

*Jenden artean izatu banaiz bereizle samurlaria  
Izan zaite zu neure partetik bakezale den xoria.*

Hain zuzen azken kantu honen sortzeko hautatu du guti edo sekulan baliatu duen neurria, 18 oineko neurtitz luzea (5+5+8) lau pundutan.

## EGUNEROKO BIZIA

**Ibarzola:** Mendia da, dudarik gabe, Mixel Labèguerie inguratzen duen bazterretarik ederrena. Kanbo ez da itsasutik urrun, hor hasten da mendia, Mixeli emaiten dion lillura aipatzen du Ibarzola kantuan.

*Entzun dut neure baitan  
Mendiaren deia  
Entzun dut neure baitan  
Kantari mendia.*

Mendia kantari, presuna gisa, mintza daiteken laguna. Ibarzolatik errekatik badoa, mendi hegaletan gaindi, mendi kaskora. Han egiazko askatasuna, soa urruti heda daiteken tokia, han ere entzun daiteken musikarik ederrena.

Neurtitz batek salatzen du olerkariaren sendimendurik sakonena.

*Ta nitan sortzen senditu herriaren maitasuna.*

**Elur egin du:** Euskal Herria neguan. Mendiak mantalin xuritan, arbolak biluzirik, bazterrak ixiltasunez beteak. Bazterrak lo, etxeko bera supazterrean primaderaren zain. Giro berezia, etxekoa, neurri ez ezagun batean emana (8-5-6-8-10) bi erimakoa. Oin edo silaba bakoitzak eskaintzen du bere ots eztia.

*Elur egin du gau huntan.*

azken neurtitzak igortzen gaituela haur denborara.

**Loa loa:** Haur denbora, haurra ezin lokartuz. Zerk (hiru aldiz) edo nork (aldi bat) du tratatzen. Lau galde, uli, lupu eta muskeraren beldurra behar bada. Bainan xori urdinaren gibeletik doalarik haurra, ezin lokartuz, Maeterlinck-ek haurrek bezala badoa zorionaren bila eskapatzera utzi dutelarik. Haurra ezin lokartuz, gatua aldiz «*lokartunik ametsetan*», denak lo direla eta beraz «*lo, ene ñimiñoa, lo*».

**Gau iluna-**ren ondotik goiz argia. Loaren ondotik bizia, bazterrak atzarnik daudela. Bertze egun bat hasten da. Olerkariak kantatzen du egun berria amodioz betea, zorionsua.

*Parabisua dirudi, de na kantu eta irri,  
Xorien magnifikatak betetze n due la ze rua.*

Azken errepikak oroitarazten du euskarazko “Magnifikata” (kantuz ari zait *ene arima Jainkoari*) diolarik:

*Kantuz ari naiz zuretzat, kantuz ari xoriak  
Amodiozko goizean ideki bi begiak.  
Badoa bizia, badoa denbora.*

Ezkilaren kantua, hor dago biziaren urratsen seinalatzeko. Hain da zaharra non ezagutu dituen belaunaldiak eta belaunaldiak: aitatxiren bataioa, ezkontza, ezagutu dituen gertakari latzak, haren ehorzketak. Bizi bat osoa eta bizi hori bururatzen delarik bertze bat da hasten. Gogoan dauka olerkariak denboraren iragaitea ezkila zaharra dela lekuko.

*Kanta beza ezkilak menderen mendetan  
Kanta beza bizia Euskal Herrietan.*

Iragankorra dela denbora Maritxuk badaki. Hiru urte, hogei, berrogei, larrogei, haurra, gaztea, jende heldua, xaharra, biziaren aro desberdinak nigarrez beteak zerbait galdu duelakotz, lehen hortzetik azken hortzeraino. Alegia idurikoa liteke kantu hau ez balitz izan hain dohakabea gure Maritxu. Gixtinoki bertze bizi zoriontsu bati buruz egiten du otoitz.

*Ze ruari begira egiten du kantu.*

Iragankorra balinbada denbora, iragankorrek ere ohidurak. Duela berrogei bat urte Mixelek idatzi balinbadu Primaderako liliak ez lezake idatz orai. Gau-  
regun eta non nahi Bazko jartzen da Erramu baino lehen gazteen egutegian. *Gaituzte ezkontarazi* edo *ezkontarazi gaituzte* ez da gehiago lege zorrotza pentsatzen baitute ezkontza ez dela beharrezkoa ere. Halere kantua hor dago garai luze baten lekuko, gizartea zela nagusi, ohidura onetan sartu beharrez.

## ALEGIAK

**Xorieri mintzo zen:** Herri bakoitzean bada xoro bat baztertua, trufa-gai hartua. Bere munduan bizi da xoroa: errekak, zuhaitzak, izarrak ditu solaskide. Jendeak aldiz ez. Aski idurikoa gure xoroa? Ez eskolatua bainan, berez, jakintsuna, jendeek ez duten seigarren sentsu bat duelakotz zeruko seinaleen ulertzeko eta jendeen bihotzetan irakurtzeko. Bizi latza iragan du xoroak, trufa merke, lana ugari, pairamen asko. Bakartasunean bizi, bakartasunean hil.

Kristo bezala bere azken oronean. Dio Lukasen ebanjelioak: «*Jadanik eguerdi zen nunbait han eta ilunbea egin zen lur guziaren gainean hiruak arte iguzkia gorderik. Tènploko oihala erditik urratu zen.*» Xoroarentzat dio olerkariak:



*Hilobian ezartzean haizea zen gelditu,  
Xoriak ziren ixildu, zerua zen goibeldu,  
Zerua zen goibeldu, ta jendea orroitu.*

Alegia gisa, iraganean da xomaren istorioa eta hortakotz Mixel-ek hautatu du euskal kantu zaharretako berezitasuna, neurtitz baten bigarren zatia errepikatzen dela segidan heldu denaren lehen zatian (*zeruko seinaletan — laneko baliatzen — salbu lau hilketari — zerua zen goibeldu*).

**Gatua Pitxitxi:** Haurren eta jende helduentzat landua den alegia. Zinez landua, ikusiz errepikak daukan erima aberatsa:

*Gure gatua Pitxitxi  
Da dena ile ta txitxi.*

Gatua agertzen da Mixel Labèguerie-ren kantuetan (ikus *Loa loa*) beti lo supazter xokoan. Elxeko gatu angora grisa. Omoretsua da kantua gatu/ kalonjer konparaketarekin, neurkadak (zortzi oineko neurtitzak) emaiten diolarik arintasun alaia. Bat iletu bertzea burusoil edo kasko pelatua bainan biak gizenak eta biak lo kuluxkazaleak, adinak ere hala manatzen baitu. Azken iriño batekin gatuari idekitzen dio olerkariak gatuen parabisua, betiereko zoriona.

*Nola bizi den lur huntan  
Hala gatue n ze rutan,  
Biziko da amentsetan  
Sekulorum sekulotan.*

**Astoa Balaan:** Izen bitxia Balaan. Uztaritzeko seminarioan irakuri zukeen Mixel-ek Balaam profetaren istorioa Yahve-k galdeginik predikatzen zuela Israeldaren artean. Ohidura zahar baten arabera bazuen Balaam-ek astaña bat mintzo zena noiztenka adiaraziz Balaam-i Yahve-ren manua. Kantu honek badauka antzerki itxura asto kokorraren aurkezpena eginez (lehen agerraldia) erretoraren hasarrea eta astoaren haizatzea (bigarren agerraldia). Alabainan elizan apez nagusi eta apezak azken hitza. Hirugarren agerraldiak igortzen gaitu Betleemeko mañaterara, iragan urrunera astoak eta idiak (bi abere) berotzen zutelarik Jesus haurra.

*Orroit baita asto bat beretter izanik  
Lehen egubermia gertatu zelarik.*

Asisko San Frantsesen Fioretti idurikoa.

Aitatxiren otoa-rekin ildo beretik doa olerkaria, antzerki ttipi baten itxura baitauka kantuak, errepikak azpimarratzen dituela otoaren “*ahalak*”.

*Hauxe da motorra  
Den su ta karra  
Oi hunen indarra  
Jausteen due larik patarra.*

Lehenik berbilaren aurkezpena, hautuzko izen ondo ironikoz homiturik (*oto xarmanta — urtez aberats — motorrez marranta*). Gero otoaren ibilaldia, denak suntsitzen dituela bidenabar. Mundu barregari batetara eremaiten gaitu olerkariak Rabelais-en gisara, zenbakiek daukatelarik beren iri-zama.

*Le herturik baditu oiloak e hunka  
Mutxurdinak hamar bat, jandarmak hameka.*

## NORBERAKOA

Umorea utzirik alde batera, huna etorriak garai latzak. **Bost iturri** deritzan kantuan Mixel-ek azaltzen du bihotzean daukan zauria, aita baten oihu samina. Bost iturri horietarik jalgitzen zen ur garbia eta amodiozko kantua. Hiru aldiz errepikatuko du *bost* zenbakia beti neurtitzen hastapenean, lau aldiz gero *hil da* aditza beti ere neurtitz hasieran metaforen bitartez erakusten duela ezti ezin daitekeen oinazea.

*Hil da neure zeruko izar eztiena  
Hil da uhain arina plaia bazterrean  
Hil da uso gazte iratze gorrian  
Hil da neure umea bide kurutzean.*

Gerotik mundua osoki aldatu da, mendia hain maite duen ingurumeneko mendia ez da gehiago osoki idekia, olerkariaren bihotza bezala hetsi eta gogortu, arrokaz bete, gaztelu bat daukala zaindari.

*Mundarraingo kaskoa arrokak inguru,  
Mendirik ederrena dirudi gaztelu,  
Bost semen erdian nik banuen urgulu,  
Zeruko Jainko Jauna, bortizki jo nauzu.*

Ez bila azken neurtitzean Jainko Jaunaren kontrako jazartzerik. Bihotz zauituaren oihu garrantza baizik.

\* \* \*

Ereman zaituztet, entzule maiteak, Mixel Labèguerie-k euskal kantuan eta euskal literaturan ideki digun bidetik. Bidenabar aitortzen du abertzaletasuna, nola ikusten zituen Euskal Herriko mendi, ibar, zelai, bazter guziak eta ere jendeak, nola, umorez betea, gure alaitzeko sortu dituen alegiak baita ere aita baten oihu samina galdu duelarik seme gehiena.

Oxobi-ren hil-hobiaren aintzinean eman zituen bertsu ederrak. Haien artean bada bat, enetzat ezin ahantzia, olerkari haundi baten zigiluaz joa, konsonante ozenez (b, d, g, n, l), txistukariez (x, s, z) eta bokal hetsiez (i, u) landua, egiazko musika, zinezko olerkariak bakarrik sort lezakeena. Mixeli eskaintzen diot:

*Aingeru hegal ixil bat jin zauzu bila gau batez  
Eta orai, iduri du, haize hegoa entzunez  
Intzirika dagoela e uskara oinazez.*

## LA POÉSIE CHANTÉE DE MICHEL LABÈGUERIE

Cet article est l'adaptation au français d'une conférence faite en basque en hommage à Michel Labèguerie le samedi 14 octobre 2000 au Centre Lapurdi d'Ustaritz.

Les citations des poèmes n'ont pas été traduites pour que le lecteur bascophone puisse les apprécier. Les non-bascophones désireux d'en connaître le sens n'auront qu'à se reporter à l'ouvrage édité à l'occasion et intitulé "Hommage à Michel Labèguerie", recueil de ses poésies dont j'ai assuré la traduction.

Le chant est la première manifestation littéraire en Pays Basque. Dès le XIV<sup>e</sup> siècle au Sud, au XV<sup>e</sup> en Pays Basque Nord avec le fameux *Berre terre - txeren khantorea*. Chants relatifs à des événements très souvent guerriers ou chants d'amour aux XVIII<sup>e</sup> et XIX<sup>e</sup> siècles, ils comprenaient un nombre de strophes important, allant jusqu'à vingt-cinq couplets comme par exemple *Ahaide de lezius huntan* d'Etzahun de Barcus et cela encore en 1848. Le chant obéissait à une coutume ancestrale, celle de raconter un événement ou une histoire par le menu, l'auditeur étant friand de tous les détails et aucune littérature populaire n'a échappé à ce genre.

Changement d'optique vers le milieu du XIX<sup>e</sup> siècle, très exactement à partir de 1853, date à laquelle Antoine d'Abbadie, le mécène des lettres basques et ses amis, fondèrent les Jeux floraux. Ils invitèrent tous les poètes du Pays Basque à participer à la joute avec la condition suivante:

*«La chanson ne devra pas avoir plus de cinquante vers, être en strophes et être adaptée à un air basque connu que l'auteur indiquera.»*

L'antique usage n'est pas totalement mis à mal car sont maintenues la structure en strophes et l'adaptation à un air ancien connu. La seule différence réside dans la longueur de la chanson: cinquante vers au maximum, c'est-à-dire douze à treize quatrains ou dix quintils. Les poètes de l'époque, Elissamburu, le D<sup>r</sup> Larralde, Otxalde, Dibarrart, Zalduby s'adapteront à cette règle sauf de rares exceptions.

Au XX<sup>e</sup> siècle le progrès technique avec le disque, la radio puis la télévision a apporté un changement profond. Le disque, en particulier, remplacera le papier et augmentera la diffusion dans la mesure où le chanteur lui-même se fait entendre et occupe ainsi une place particulière à côté du compositeur quand le même ne remplit pas les deux rôles. C'est ce qu'a parfaitement compris Michel Labèguerie dans les années cinquante. Enregistrée, la chan-

son ne doit guère durer plus de trois minutes. Ainsi, la technique nouvelle de diffusion changera totalement la règle des Jeux floraux qui aura duré un peu plus d'un siècle et obligera à composer des chants de courte durée. Michel Labèguerie inaugure donc une esthétique nouvelle de la chanson, du poème chanté. Il a été le premier, il sera suivi aussi bien en Pays Basque Nord qu'en Pays Basque Sud et tout le monde s'accorde pour dire qu'il a été le père de la chanson nouvelle, tant du point de vue du fond que de la forme et que, désormais, est terminée l'habitude ancestrale de composer un poème sur un air connu.

## LA THÉMATIQUE DE MICHEL LABÈGUERIE

Quel message et comment le faire passer dans un laps de temps si court, trois minutes au maximum. Tout est bouleversé: la strophe elle-même est raccourcie; elle est d'un seul vers (*Amen*), de deux vers (*Ezkilaren kantua*); quand il s'agit de quatrains, ils seront au nombre de trois ou quatre, guère plus: trois (*Haurtxo haurtxoa, Zer duk hain ilun*), quatre (*Gazteri berria, Bost iturri*). Quand le nombre de strophes est supérieur, c'est le vers lui-même qui est diminué aussi bien dans *Gatua Pitxitxi* que dans *Gau ilunak*. On n'a plus affaire au long vers de 18 pieds (5+5+8) ou encore de 13 pieds (7+6), c'est le vers de huit syllabes qui domine. On peut donc mesurer le changement radical qui se produit dans la deuxième moitié du XX<sup>e</sup> siècle.

D'autre part les thèmes sont contemporains et non plus ceux du XIX<sup>e</sup> siècle qui célébraient en particulier le monde rural, la ferme, le paysan, le berger. Sont mises de côté aussi les louanges aux grands de ce monde, comme par exemple l'empereur Napoléon III et l'impératrice Eugénie, qui, il est vrai, passaient l'été à Biarritz.

L'ambiance est profondément transformée au Pays Basque après la guerre civile espagnole et la deuxième guerre mondiale. Franco, le dictateur, règne en maître en Espagne et exerce ses représailles en particulier sur les deux provinces "traîtresses", le Guipuzcoa et la Biscaye, alors que le souvenir du bombardement de Guernica et l'existence d'un gouvernement autonome basque persiste dans les esprits et les coeurs. La première vague d'exilés date des années 1937-1939 suivie de celle des années soixante, à la suite de la naissance du mouvement clandestin ETA et que commence la lutte armée.

## LE PATRIOTISME

Michel Labèguerie a été, parce qu'il vivait en Pays Basque Nord, le premier à avoir, au cours de cette sombre période, exalté le sentiment patriotique des Basques.

L'un des thèmes sera celui du *gudari* (combattant) basque.

**Zer duk hain ilun:** Dans ce chant, par l'intermédiaire du dialogue apparaissent les soucis et angoisses du combattant basque. Il refuse de participer aux fêtes, et, quoique jeune, il a mûri trop tôt. La blessure profonde qu'il porte au cœur c'est qu'Euskadi, la patrie, n'est pas libre. Ses amis, compagnons d'armes, sont morts ou en exil, lui-même se sent prisonnier — avec tous les Basques — dans sa propre maison. Il vit dans le rêve d'une Euskadi libre en espérant, après la nuit noire, apercevoir la lueur de l'aube.

*Bai, bai, bai, alai izango naiz ni  
Libratu eta Euskadi.*

**Gazteri berria:** Cette jeunesse nouvelle est en train de naître en Euskadi. Dans le refrain, quatre fois repris dans le chant, est résumé l'acte de foi de cette jeunesse.

*Gu gira Euskadiko gazteri berria,  
Euskadi bakarra da gure aberria.*

Tout est dit dans ces deux vers qui exaltent Euskadi ainsi que la patrie, quand on sait que ces deux mots, Euskadi et aberria, sont interdits en Pays Basque Sud. Dans les années soixante ces deux mots ne manquent pas de densité et d'intensité. J'en suis témoin car, un soir de l'été 1964, nous nous rendîmes Michel Labèguerie, Pierre Landaburu et moi-même au siège d'une société gastronomique de Saint-Sébastien où Michel interpréta ce chant. Comme au cours d'un office, écouté dans le silence total, le chant se termina dans des bravos intenses où l'émotion des cœurs se traduisait par quelques larmes qui perlaient dans les yeux.

Ce chant montre bien les préoccupations des jeunes: les terres vendues aux étrangers, la non-transmission de l'euskara par les parents, la division d'un Pays Basque par une frontière et le rêve d'un Pays Basque unifié. J'ajoute que Michel Labèguerie propose une idée de tolérance envers tous ceux qui vivent sur la terre basque ou encore les voisins, idée qui n'était pas très en vogue avant la guerre civile.

*Kaskoin edo make to ez dugu etsaia,  
Bainan Euskal seme a da gure anaia.*

Idée neuve, chrétienne sans nul doute.

**Haurtxo haurtxoa** est une berceuse basque que la mère chante à l'enfant pour l'endormir. Là encore le refrain résume l'ambiance:

*Haurtxo haurtxoa izu egin lo,  
Hemen nauzu, zu zaintze ko.*

Je suis là, auprès de toi, dans la solitude car ton père est prisonnier. Petit à petit la mère dévoile à l'enfant l'exacte vérité, l'absence du père. *Aita urrun*

*da* dans la première strophe, *Aita preso da* dans la seconde et, dès lors, les verbes sont placés au futur: *etorriko da*, *bizitzeko*, *izango dira* porteurs d'un message d'espoir.

Berceuse certes, mais aussi chant de la famille séparée, car le père, par engagement patriotique, est en prison et que la mère, seule, a pour mission d'élever l'enfant en l'entourant du double amour maternel et paternel.

*Tripan min* ressemble à un chant de Brassens. Il s'agit d'une querelle entre un Gascon et un Basque: soir de marché, repas en tête-à-tête à l'auberge, il est temps de se retirer. Alors commence la querelle car ils sont entrés en politique. Les cris fusent, fiers comme *Gora Euskadi*, blessants comme *sale Basque*. Les gendarmes interviennent, emprisonnent le Basque, laissent le Gascon en liberté. Ainsi naît la haine que l'on ne peut oublier. *Gureak gure* affirme le chant, chacun maître chez soi et je suis sûr que Michel avait en tête ce que Hiriart-Urruty, l'oncle, écrivait un jour dans l'*Eskualduna*:

«Si nous voulons rester toujours maîtres chez nous sachons quand il le faut parler et agir sans peur. Ne soyons ni timides, ni timorés, révoltons-nous contre l'ennemi lorsqu'il pourrait avoir l'intention de nous écraser. Et s'il ne veut pas croire que nous sommes, nous Basques, maîtres chez nous, agressons-le.»

*Nafarra, oi Nafarra*: Michel Labèguerie connaissait l'histoire du Pays Basque, celle du royaume de Navarre qu'il réactualise en l'appelant *Euskadi le he-na*. Il lui donne la primauté avec la métaphore de la rose aux sept pétales, rappelant ensuite l'époque de Sanche le Grand qui rassemblait les sept provinces du Pays Basque. Dans ce chant se détache en particulier le refrain, jamais le même, quelque peu changé chaque fois. Le premier vers ne varie pas:

*Nafarra, oi Nafarra, Euskadi le he na*

ainsi que dans le deuxième les mots *ametsa* et *zure erregena*. Par contre, les verbes varient, au passé dans le premier refrain, *ederra zen*, au présent dans le second, *nun da*, à l'impératif dans le troisième, *egin zazu*, à l'optatif dans le dernier, *bizi be di*.

Retour au passé dans la première strophe:

*Zurean zen loratu batasun gogoan.*

Les ténèbres dans la seconde strophe, l'histoire persistant dans le souvenir jusqu'au temps présent:

*Santxoren hil hobitik ilun nabarre tan  
Be ti jalgitzen diren hasperen trixte tan.*

En se tournant vers l'avenir il ordonne à la Navarre de se lever, toujours frère, en faveur de l'unité:

*Xuti zaita ta jalgi errege jauntzitan  
Batasun berriaren arrosa eskutan.*

C'est alors qu'est exprimé le souhait

*Bizi bedi ametsa zure erregena.*

Ce chant relève du rêve, tout particulièrement à l'époque actuelle. Il est vrai que le rêve est le domaine privilégié des poètes.

**Parisen eta Madrilen:** Chanson des années 70. Le gouvernement français chasse des provinces basques de France les réfugiés politiques venus du Sud. Dès lors se multiplient les grèves de la faim, à la cathédrale de Bayonne et dans les églises du Pays Basque Nord. C'est contre la complicité entre les deux gouvernements de Paris et de Madrid que s'élèvent le poète et les jeunes en grève, politique qui va à l'encontre des droits de la personne humaine.

*Euskal seme hobere nak zazkote oldartu.*

Mais cette révolte n'est pas la lutte armée.

*Aserik dagon munduan hautatu gosea.*

Il est explicitement affirmé que cette révolte reste pacifique.

*Ez dute hartu puñalik ez eta bonbarik  
Ez zuten harma beharrik gosea besterik.*

Il me souvient que dans le cadre de la résistance à l'occupant le poète Paul Eluard en appelait «aux armes de la douleur».

**Bakearen urtxoa:** Cette colombe de la paix dessinée par Picasso, connue dans le monde entier est un symbole universel. Les paroles sont de Pierre Larzabal que Michel Labèguerie a peut-être quelque peu retouchées tant il était perfectionniste et pour lesquelles il a écrit la musique.

Le poète demande à la colombe qu'elle soit la consolatrice de tous ceux qui pâtissent ou ont pâti des horreurs de la guerre, de ses conséquences (morts, blessés, prisonniers) et cela dans le monde entier. La deuxième strophe va au-delà. La colombe ne doit pas être simplement consolatrice, mais surtout semeuse d'espérance. La repentance ne suffit pas; la colombe doit aider le malheureux, le réchauffer, le tirer des ténèbres dans lesquelles il vit, l'orienter vers le futur, lui insuffler la force de vivre. La dernière strophe est de l'ordre de la prière: *hemen zaita geldî*, sur cette terre sacrée qui se

nomme Euskadi, déchirée et meurtrie. Dans ce chant comme dans bien d'autres le refrain a son importance qui oppose les ténèbres à la lumière des étoiles.

*Jende gaixoak  
Ez be ha gau beltzari,  
Bainan bai izarre ri  
Bake a dela zueri.*

A la place des “pauvres gens” le dernier refrain insère *oi Eskualdunak* en se recentrant sur le Pays Basque évoqué dans la dernière strophe.

**Amen:** Les paroles sont de Julian Lekuona, la musique de Michel Labèguerie. Cinq fois le refrain répète que comme tous les êtres humains les Basques ont un corps et une âme y compris les prêtres.

Certes, les prêtres sont basques, ils ont conscience de la valeur de leur langue car elle est bien ancrée dans leur esprit. Ils ne comprennent pas les ordres donnés dans une autre langue et, de plus ils ne veulent pas les comprendre même s'ils sont venus de l'évêque lui-même. Dieu seul les commande et les prêtres obéissent car Dieu leur parle en basque. Ce chant est celui de la prise de conscience de l'euskara.

**Oi kanta berri:** Eneko Labèguerie dit que c'est un des derniers chants de son père. Le poème lui-même le laisse entendre.

*Beste lanetan iragan ditut hainitz egun ta gaualdi.*

Dans la deuxième strophe le poète apparaît comme homme public quand il invoque les chemins, les ponts, l'électricité et l'eau pure absolument nécessaires et qui sont du domaine des maires et autres élus afin que tous les villages et leurs habitants puissent vivre avec toutes les commodités offertes par les progrès du XX<sup>e</sup> siècle.

Ces quatre mots (chemins, ponts, électricité, eau) sont repris dans la troisième strophe, chacun d'entre eux finissant les vers du quatrain, gagnant en intensité par leur position en final de vers et devenus de véritables symboles grâce à la métaphore:

*Oi kanta berri izan zaite zu, anarteko zubia,  
Batasunetik libertatera gidatzen duen bidia,  
Kartzelaren abertzaleari emozu doi bat argia,  
Etsiturikan den bihotzari esperantza ur bizia.*

Les devoirs du maire, aspirations du poète abertzale. Il est clair que ce chant est un des derniers composés par Michel Labèguerie. Dans le dernier couplet il jette un regard en arrière, il revoit son passé et ce chant nouveau est, finalement, celui qu'il compose en repentance de ses manquements.



*Je nden artean izatu banaiz berezile samurlaria  
Izan zaitte zu, ne ure partetik, bakezale den xoria.*

En effet, pour ce dernier chant, le poète a choisi le vers classique de la poésie basque, le vers de 18 pieds (5+5+8) en quatrain qu'il n'avait jamais utilisé dans toute son oeuvre.

## LA VIE QUOTIDIENNE

**Ibarzola:** La montagne est, sans nul doute, le paysage le plus beau qui entoure Michel Labèguerie. Cambo n'est pas loin d'Itxassou où commence la montagne. La fascination qu'elle exerce sur Michel est exprimée dans le chant *Ibarzola*.

*Entzun dut ne ure baitan  
Mendiaren deia  
Entzun dut ne ure baitan  
Kantari mendia.*

Chant de la montagne personnalisée, amie, avec laquelle il est possible de dialoguer. Le poète va depuis le fond de la vallée vers le sommet en passant par les contreforts. Là-haut réside la vraie liberté, la vue peut s'étendre au loin, là-haut aussi on peut entendre la plus belle des musiques. Un vers révèle le sentiment le plus intime du poète.

*Ta nitan sortzen senditu herriaren maitasuna.*

**Elur egin du** — Le Pays Basque en hiver: montagnes voilées de blanc, arbres dénudés, nature silencieuse, endormie, chaleur de l'âtre dans la maison en attendant le retour du printemps. Ambiance particulière évoquée par un rythme inconnu (8-5-6-8-10) à double rime. Chaque pied ou syllabe offre sa douce sonorité.

*Elur egin du gau huntan*

avec prédominance de la voyelle *u* et des consonnes sonores (*l - g - d*). Le dernier vers nous renvoie vers la tendre enfance.

**Loa, loa:** Bercer l'enfant qui ne peut s'endormir. Qu'est-ce qui... (trois fois), qui est-ce qui... (une fois) l'en empêche. Quatre questions: la peur de la mouche, de l'araignée, du lézard ? Mais quand l'enfant poursuit l'oiseau bleu sans pouvoir trouver le sommeil il va, semblable aux enfants de Maelinck, à la recherche du bonheur qu'ils ont laissé échapper.

Si l'enfant ne peut s'endormir, le chat, au contraire, rêve en dormant, et alors que tout le monde dort, *lo ene ñimñoa*, *lo* chante la berceuse.

**Gau iluna:** Aux ténèbres succède la lumière du jour. Après le sommeil, la vie, la nature éveillée. Commence un autre jour. Le poète chante le jour nouveau, plein d'amour et de bonheur. Il ressemble au paradis, plein de chants et de rires.

*Xorien magnifikatez bete a da guzia.*

Le dernier refrain reprend le magnificat basque: *Kantuz ari zait ene arima Jainkoari:*

*Kantuz ari naiz zuretzat, kantuz ari xoriak,  
Amodiozko goizean ideki bi begiak.*

Le temps s'écoule, la vie aussi.

**Ezkilaren kantua:** La cloche sonne les diverses étapes du jour et de la vie. Elle est si vieille qu'elle a connu nombre de générations: le baptême d'aitatxi, son mariage, les douloureux événements qu'il a connus, ses obsèques. Une vie entière se termine et, lorsqu'elle s'achève, une autre vie recommence. Le poète ressent la fuite du temps par le témoignage de l'antique cloche.

*Kanta beza ezkilak menderen menderetan,  
Kanta beza bizia Euskal Herrietan.*

Maritxu sait que le temps s'enfuit. Trois ans, vingt ans, quarante, quatre-vingts, enfant, jeune, adulte, aïeule, ces diverses étapes de la vie, elle les a subies en pleurant car elle a toujours perdu quelque chose, sa première dent, son premier amour, son fils unique. Il y a déjà quelque temps qu'elle a perdu sa dernière dent et que ses yeux n'ont plus de larmes. Cette chanson ressemblerait à une fable si Maritxu n'avait pas été si malheureuse. Chrétienne, elle se tourne vers une vie plus heureuse, les yeux rivés au ciel.

*Zeruari begira, egiten du kantu.*

**Primaderako liliak:** Si le temps s'écoule, les coutumes à leur tour sont éphémères. Si Michel Labèguerie a écrit il y a une quarantaine d'années *Primaderako liliak*, il ne l'écrirait pas aujourd'hui. Dans le calendrier des jeunes générations Pâques précède le jour des Rameaux c'est-à-dire que l'enfant naît avant le mariage des parents, quand il y a mariage. L'obligation de se marier n'est plus de mise et la loi d'airain imposée par la société de se marier pour légitimer l'enfant est devenue obsolète. Qu'importe ! Le chant témoigne des coutumes d'une époque révolue.

## LES FABLES

**Xorieri mintzo zen:** Dans chaque village, il y a un innocent, l'idiot du village, laissé pour compte et objet de risées. Il vit dans son propre monde: il par-

le avec les ruisseaux, les arbres, les étoiles, pas avec les personnes. Le nôtre est ainsi: analphabète et savant à la fois car il possède un sixième sens qui lui fait interpréter les signes du ciel et sonder les reins et les coeurs des gens.

Il a passé une vie rude, en butte aux sarcasmes, surchargé de travail et de souffrances. Ayant vécu dans la solitude, il est mort de même, comme le Christ dans sa dernière heure. Dans l'évangile de Luc, on peut lire: «*C'était déjà presque midi et il y eut des ténèbres sur toute la terre jusqu'à trois heures, le soleil ayant disparu. Alors le voile du sanctuaire se déchira par le milieu.*»

Pour l'innocent le poète dit:

*Hil hobian ezartzean haizea zen gelditu,  
Xoriak ziren ixildu, ze rua zen goibeldu,  
Ze rua zen goibeldu, ta jendea orroitu.*

Ainsi que dans une fable l'histoire est narrée au passé et Michel a choisi, pour plonger encore plus dans l'antériorité, cette particularité des plus anciens chants basques qui consiste à reprendre dans chaque strophe le deuxième hémistiche de l'avant dernier vers dans le premier hémistiche du dernier.

*Ainsi zeru seinaletan — laneko baliatzen — salbu lau hilketari — ze rua zen goibeldu.*

**Gatua Pitxitxi:** Fable destinée aux enfants et aux adultes. Particulièrement figolée à en croire la riche rime du refrain:

*Gure gatua Pitxitxi  
Da dena ile ta txitxi.*

Le chat apparaît dans les chants de Michel Labèguerie (voir *Loa, loa*) toujours endormi au coin du feu: le chat gris angora de la maison. Le chant est plein d'humour lorsque le chat est comparé au chanoine et cela d'autant plus que le rythme (vers de huit pieds) lui confère une joyeuse vivacité. L'un (le chat) au poil dru, l'autre (le chanoine) au crâne dénudé, mais tous deux gras-souilllets et tous deux fervents de la sieste, l'âge aidant. Par un dernier sourire le poète ouvre au chat, le paradis des minets, le bonheur éternel.

*Nola bizi den lur huntan  
Hala gatue n ze rutan,  
Biziko da amentsetan  
Se kulorum, se kulotan.*

**Astoa Balaan:** Curieux nom que Balaan. Lorsqu'il faisait ses études secondaires au petit Séminaire d'Ustaritz Michel Labèguerie avait dû lire l'histoire du prophète Balaam auquel Yahvé avait demandé de prêcher au milieu

des Israélites. Selon une vieille légende, Balaam le prophète avait une ânesse douée de parole qui, de temps en temps, rappelait à Balaam le commandement de Yahvé. Ce chant est, en fait, une petite pièce de théâtre.

Entrée en scène de l'ânon (premier acte), la colère du curé et la mise à la porte de l'âne (deuxième acte) car le curé est tout de même maître chez lui. Le troisième acte nous renvoie à la crèche de Bethléem où le boeuf et l'âne, de vrais enfants de chœur, réchauffaient l'enfant Jésus.

*Orroit baita asto bat beretter izanik  
Lehen eguberria gertatu zelarik*

Semblable aux "Fioretti" de Saint François.

Aitatxiren otoa est de la même verve, petite pièce de théâtre au cours de laquelle le refrain "exalte" les possibilités de la vieille automobile.

*Hauxe da motora  
Dena su ta karra  
Oi hunen indarra  
Justen due larik patarra.*

En premier la présentation de l'auto par des épithètes ironiques, charmante auto, riche en années, enrhumée du moteur. Ensuite l'épopée de l'auto dans un voyage où elle écrase tout sur son passage. Le poète nous mène dans un monde burlesque où, à la manière de Rabelais, les chiffres ont leur pesant de comique.

*Leher turik baditu oiloak ehunka,  
Mutxurdiak hamar bat, jandarmak hameka.*

## La poésie personnelle

Laisant de côté l'humour des petites fables Michel Labèguerie a connu des moments douloureux dans sa vie, la perte à dix-sept ans de son fils aîné, le décès de son épouse.

Bost iturri est le chant où apparaît un cœur durement meurtri et où résonne le cri amer d'un père. Cinq enfants, cinq sources d'eau pure qui chantent un chant d'amour. Par trois fois sera répété le chiffre cinq, toujours en tête de vers, quatre fois, par la suite, le verbe *hil da*, lui aussi en tête de vers, montrant à travers les diverses métaphores *izar*, *uhain*, *uso*, une plaie impossible à refermer.

*Hil da neure zeruko izar eztiëna,  
Hil da uhain arina plaia bazterrean,  
Hil da uso gaztea iratze gorrian,  
Hil da neure umea bide kurutzean.*

Dès lors, le monde est totalement changé. La montagne, la montagne tant aimée, n'est plus un espace ouvert; semblable au coeur du poète elle s'est refermée, elle s'est durcie, devenue rocailleuse et possède un château fort pour la défendre.

*Mundarraingo kaskoak arrokak inguru,  
Mendirik e derre na dirudi gaztelu,  
Bost seme n erdian nik banue n urgulu,  
Zeruko Jaunko Jauna bortizki jo nauzu.*

Ne cherchez pas dans le dernier vers de révolte contre Dieu. Rien que l'âpre cri d'un coeur profondément blessé.

\* \* \*

Je vous ai guidé sur le chemin que Michel Labèguerie a ouvert dans le chant et la littérature basques. On y découvre un poète abertzale, sensible aux beautés de la nature basque, montagnes, vallées, plaines, ruisseaux, forêts, sensible aussi à ses habitants, plein d'humour dans la création de ses petites fables intéressant les adultes autant que les enfants, ayant ressenti durement aussi la perte accidentelle de son fils aîné.

Sur la tombe du poète Oxobi il avait déclamé un poème de sa composition d'une splendide beauté. Parmi les strophes j'en détache une, inoubliable, frappée du sceau d'un grand poète avec ses consonnes sonores (b, d, g, n, l) ses sibilantes (x, s, z) et ses voyelles fermées (i, u), véritable musique, que seuls les grands poètes sont capables de créer. Je la renvoie aujourd'hui à son auteur, mon ami Michel, au vingtième anniversaire de son décès.

*Aingeru hegal ixil bat jin zauzu bila gau batez,  
Eta orai, iduri du, haize hegoa entzunez  
Intzirika dagoe la e uskara oinazez.*